


## EAEko familien konfiantza indartu egin da

### EAEKO FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA



### 2021eko III hiruhilekoa

**+5**




Laboral Kutxak egindako EAEko familien konfiantza indizeak aurreko hiruhilekoan hasi zen baikortasunerako joera sendotu zuen aurtengo hirugarren hiruhilekoan. Bere konfiantza indizearen balioa 5koa izanik, eremu positiboan finkatu da. Kutsatuen olatu berriak agertu arren, txertaketak aurrera egin du, murrizketak lasaitu dira eta mugikortasuna eta jarduera ekonomikoak suspertu dira. Horri esker, susperraldiaren eszenategia sendotu egin da, eta EAEko familiek argi eta garbi ikusi dute hori.

Baikortasun hori ez dator bat Espainiako (-9), Europar Batasuneko (-6), Frantziako (-6) eta Alemaniako (-3) familien ezkortasunarekin, nahiz eta guztietan sentimendua hobetu dela ikusi den. Herbehereak joera horretatik urrundu dira, non bere konfiantzak hiru puntu egin duen atzera, bere indizea balio neutro batean geratuz (0). Espainiaren kasuan, susperraldian oraindik atzeratuta dauden jarduera batzuek, hala nola naziarteko turismoak, duten pisu handiak azaltzen du konfiantza falta hori.

### FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

|                         | 2019      | 2020       | 2020      |            |            |            | 2021       |           |           |
|-------------------------|-----------|------------|-----------|------------|------------|------------|------------|-----------|-----------|
|                         |           |            | I         | II         | III        | IV         | I          | II        | III       |
| <b>Euskadi</b>          | <b>-2</b> | <b>-22</b> | <b>-1</b> | <b>-24</b> | <b>-30</b> | <b>-33</b> | <b>-32</b> | <b>+2</b> | <b>+5</b> |
| <b>Europar Batasuna</b> | <b>-6</b> | <b>-15</b> | <b>-7</b> | <b>-21</b> | <b>-15</b> | <b>-17</b> | <b>-15</b> | <b>-7</b> | <b>-6</b> |
| Frantzia                | -9        | -13        | -8        | -18        | -12        | -14        | -13        | -6        | -6        |
| Alemania                | -2        | -10        | -3        | -16        | -9         | -11        | -11        | -4        | -3        |
| Espainia                | -6        | -23        | -10       | -28        | -27        | -26        | -22        | -11       | -9        |


## Ekonomia OROKORRA



EAEko familien konfiantzaren hobekuntzaren oinarria ekonomia orokorrari (+6) eta langabeziari (+11) buruzko itxaropenek gora egiten jarraitu zutela izan zen. Itxaropen horiek bat datoz Gizarte Segurantzak afiliazioaren eta langabeziaren bilakaerari buruz argitaratutako datuekin. Datu horiek suspertzen jarraitzen dute, eta pandemia hasi aurreko mailetatik gertu daude.

Aurrezkiaren igurikimenak (+5) hobetu egin ziren, baina gutxiago (puntu bakarra). Haren erorketa askoz txikiagoa izateak hobekuntza ibilbide muga-tuagoa dakar. Kasu honetan, nahiz eta gaur egun


## FAMILIAREN EKONOMIA




murrizketen ondorioz behartutako aurrezpenik ez egon, aurrezteko asmoak bere horretan jarraitzen du.

Familiaren ekonomiari buruzko itxaropenak soilik mantendu ziren maila ezkorrean, eta bi puntutan sakondu zuten beherakada (-4). Kontsumitzaileek historikoki adierazle horri buruz duten zuhurtzia handiagoak azaltzen du desberdintasun hori. Ar-gindarraren fakturaren gorakada izan zen, besteak beste, familien pertzepzioan beherakada eragin zuen adierazleetako bat.

## LANGABEZIAREN BILAKAERA



## AURREZTEKO GAITASUNA



Iturria: Laboral kutxa.